

Arabako Lurralde Historikoko hitzarmen sektorialak.
 Datak Arabako Lurralde Historikoaren aldizkari ofiziala argitaratzeari dagozkie

| Hitzarmena | Funtzio – eremua | Argitaratze datak | | | |
|---|--|----------------------------|---|--|--|
| Aisia hezitzailearen eta animazio soziokulturak | Hitzarmen honen bidez, aisia hezitzailean eta animazio soziokulturalean zerbitzuak ematen dituzten enpresa eta/edo erakunde pribatuak lan-harremanak arautzen dira, betiere zerbitzu horiek haurrentzat nahiz gazteentzat, helduentzat nahiz adinekoentzat badira, gauzatutako jarduerak osagarriak badira hezkuntza formalarekiko, eta horien helburua bada ohiturak eta trebetasun sozialak lantzea, pertsona bere osotasunean hezteko. | 2024/12/16 | | | |
| Altzarien merkataritza | Altzariak salerosten diharduten lantoki guztiek bete behar dute hitzarmen hau. | 2019/05/17 | | | |
| Arabako esku-hartze soziala | Hitzarmen hau esku-hartze sozialaren inguruko jarduerak gauzatzen dituzten enpresa, elkarte, fundazio, zentro, entitate edo antzeko erakundeei (aurrerantzean erakundeak) aplikatuko zaie, baldin eta erakunde horien izaera juridikoa eskubide publikokoa ez bada, edo erakunde horien akziodun nagusi eta bakarra herri administrazioaren bat ez bada. | 2023/05/10 | 2024/12/03: Batzorde Paritarioaren Akordioa | | |
| Ardoaren Industria eta merkataritza | Eremu honetan barne hartuta daude bertan bilduriko enpresaren baten kontura euren zerbitzuak ematen dituzten langile guztiak, edozein kategoría profesional dutela ere. | 2023/04/21 | | | |
| Burdigintza | Hitzarmenaren indarraldiaren hasieratik haren eremu funtzionalaren barruko enpresaren baten kontura lan egiten duten edo egin duten langile guztiak, edozein lanbide-kategoria dutela ere. Era berean, hitzarmenaren langile-eremuaren barruan sartzen dira langile hauek ere: enpresa horietako egungo plantilletako kide izan gabe, enpresa horietan lan egiten hasten direnak, hitzarmena indarrean sartzen denetik eta haren indarraldiko edozein unetan | 2022/12/22 | 2023/02/01 Batzorde Paritarioaren Akordioa | 2023/04/26 Hitzarmen kolektibotik eratorritako akordioa. | |

| | | | | | |
|--|---|----------------------------|--|--|---|
| Desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko Araban | Desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten pertsonen arreta, diagnostikoa, errehabilitazioa, prestakuntza, hezkuntza, sustapena eta laneratzea helburu duten arreta-zerbitzuetako eta titulartasun pribatuko lantokietako enpresen eta langileen lan-baldintzak arautzen ditu,alde batera utzita eskuragarri dauden plazak finantzatzeko formula (hitzartuak, diruz lagunduak, erabat pribatuak edo mistoak diren). Halaber, helburu horrekin eratutako elkarteak eta erakundeak ere sartzen dira hitzarmen honetan . Eremu funtzional bereko enpresek, fundazioek edo elkarte pribatuek kudeatzen dituzten titulartasun publikoko lantoki guztiei ere eragingo die. | 2024/02/5 | 2024/12/02: Batzorde Paritarioaren akordioa | | |
| Ehungintzaren merkataritza | Ehungintzako salerosketan diharduten enpresa guztiak, hitzarmen honen lurralde historikokoak, sartzen dira hitzarmen honetan. | 2024/06/19 | | | |
| Elikagaiaren Arabako merkataritza | Hitzarmen honek, bere lurralde-eremuan egonik, elikagaien merkataritzako salerosketan eta merkataritza jardueretan aritzen diren enpresa guztiak hartzen ditu eraginpean. | 2024/01/15 | 2024/02/26 | | |
| Eraikinetako eta Lokaletako garbikuntza | Hitzarmen honek bere eraginpeko enpresaren kontura zerbitzuak ematen dituzten langile guztiak hartzen ditu barne, beren lanbide categoria edozein izanik ere. | 2022/04/08 | | | |
| Eraikuntza eta lan publikoak | Hitzarmen honetako I. eranskinean azaltzen den jardura oro betetzen duten enpresa, erakunde publiko eta langile guztiak behartzen ditu; horretaz gain, Arabako lantokietan zerbitzuak eskaintzen dituzten langileak (behin-behineko langile gisa edo langile finko gisa) ere barne hartuko dira. | 2021/09/17 | 2023/01/11: 2023 urterako lan egutegia 2023/12/13 2024 urterako lan egutegia 2024/12/09 2025 urterako lan egutegia | 2023/04/24: Akordio 2023/05/12/ Akordio partziala | 2024/02/02 batzorde paritarioaren akordioa 2024/04/03: Akordio |

| | | | | | |
|---|--|--|--|---|--|
| <p>Errepide bidezko salgaien garraioa eta garraio-agentziak</p> | <p>Errepide bidezko garraiatze-lanetan diharduten enpresa eta garraio-agentzia guztiek bete behar dute hitzarmen hau; eta ondorengo bi sektoreak berariaz sartzen dira hitzarmen honetan: garraio bereziak eta garabiak. Hitzarmen honek ondorengo enpresa-jarduerak hartzen ditu: batetik, mota guztietako lur-bideetatik salgaiak garraiatzea, energiak hartzeko gurrpil-biderik gabe ibiltzen diren ibilgailuak erabilia; eta, bestetik, lur bidezko garraioak antolatzen dituen Legeak (16/87) salgaien garraioaren jardura laguntzaile eta osagarritzat hartzen dituen jarduerak. Bilketa eta banaketa enpresak, beraz, barruan daude</p> | <p>2017/09/08</p> | <p>2018/03/05: Soldata berrikuspena 2018rako</p> | <p>2019/02/27 Soldata berrikuspena</p> | <p>2024/02/07 estatutuz kanpoko hitzarmen kolektiboa</p> |
| <p>Errepide bidezko bidaiarien garraioa</p> | <p>Hitzarmen kolektibo honek bere bere eraginpeko enpresa guztietan aritzen diren langile guztiak barne hartzen ditu, finkoak , aldi baterakoak edo bitartekoak direla, betiere gaur egun euren zerbitzuak bertan ematen badituzte, eta baita haren iraunaldian enpresan hasten direnak ere.</p> | <p>2005/10/19 2008/11/7 Akats zuzenketa</p> | <p>2006/04/07: Soldata berrikuspena: behin betirako 2005erako eta behin-behineko 2006rako 2007/04/25: Soldata berrikuspena: behin betirako 2006rako eta behin-behineko 2007rako (8-13 orr.)</p> | <p>2008/06/13: Soldata berrikuspena behin-betirako 2007rako</p> | <p>2009/12/18: Soldata berrikuspena 2009rako</p> |
| <p>Etkez etxeko laguntza-zerbitzua</p> | <p>Autonomia mugatuta duten pertsonen etxean laguntzen diharduten enpresa, erakunde eta elkarteek bete behar dute hitzarmen hau, edozein izanda ere euren formalizazioa edo forma juridikoa, eta beti ere baldin eta Araban badihardute, etxe partikularretan zein babespeko pisuetan edo landa eremuko eguneko zentroetan, babespeko apartamentuetan edo etxebizitza komunitarioetan, etxeko laguntzailearen mailari dagokionez.</p> | <p>2019/01/16</p> | <p>2019/03/01 hitzarmen kolektiboko artikuluen aldaketaren akordioa</p> | | |
| <p>Gozogintza</p> | <p>Arabian egonik gozogintzan diharduten enpresa guztiek bete behar dute hitzarmen hau; orain arte 1975eko uztailaren 8ko Ministerio Aginduak</p> | <p>2017/04/10</p> | | | |

| | | | | | |
|--|---|--|---|---|--|
| | onartutako Elikagaien Industrietarako Lan Ordenantzak arautzen zituen. Lurralde eta funtzio eremuan sartutako enpresek bete beharko dute hitzarmena. | | | | |
| Hirugarrenentzat kirol jarduerak egiten dituzten enpresak | Arabako Lurralde Historikoan Hirugarrenentzak kirol jarduerak egiten dituzten enpresen sektoreko hitzarmen kolektiboa | 2022/09/22 | 2023/01/30 | | |
| Ile-apaindegiak eta apaindegiak | Lana eta jarduera honi dagozkion funtzioak egiten dituzten langileak hitzarmen honen ermukoak dira; aitzitik, baldin eta jarduera horiek enpresen berezko bestelako xedapenek arautzen badituzte, hitzarmen honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira. | 2006/06/28(31-47 orr.) | | | |
| Metalaren merkataritza | Metalgintzaren merkataritzan diharduten enpresa guztiek, Araban kokatutakoek, bete behar dute hitzarmen hau | 2007/03/28 | 2007/03/23: 2006rako behin behinekoa soldata berrikuspena eta 2007rako behin betiko | 2008/03/14: Soldata berrikuspena (6-9 orr.) | |
| Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerarako sasoikako lanerako | Abeltzaintzako enpresetan nekazaritza-peoi gisa diharduten sasoikako langileen gutxieneko lan-baldintzak arautzeko oinarrizko arauak ezartzen du. Mahats-bilketan, patata biltzeko kanpainan eta sasoikako lanaren beste zenbait eremutan (kimaketa, udaberriko kimaketa eta abar) diharduten sasoikako langileei aplikatuko zaie, beste zenbait eremutan aplikatzeko aukera baztertu gabe. | 2015/10/21 | | | |
| Oinetakoen merkataritza | Zapatagintzako merkataritzan diharduten enpresa guztiek, hitzarmen honen lurralde historikokoek, bete behar dute hitzarmen hau | 2022/08/29 | | | |
| Okintza eta odiaren merkataritza | Arabako Okindegien industrietarako eta merkataritzarako hitzarmen hau Araban kokatuta egonik lan-jarduera horretan diharduten enpresa eta zentro guztietan aplikatu behar da, fabrikazioaren eta | 2013/10/04 | | | |

| | | | | | |
|------------------------|--|----------------------------|---|--------------------------------------|--|
| | salmentaren izena eta forma, osaketa, aurkezpena eta prozedura edozein izanda ere. | | | | |
| Ostalaritza | Hitzarmen kolektibo honek hartara behartzen ditu ostalaritzako zerbitzuak emateko jarduerak (ostatu-ematearenak, edari eta janariarenak edo ikuskizunbea), adierazitakoen zerbitzu misto gisa, ematen dituzten enpresa guztiak. | 2018/12/07 | | | |
| Zementuaren deribatuak | Arabako lurraldean zementutik deribatutako artikuluen fabrikazioan, eta haien manipulazio eta muntaian aritzen diren industrietan kontratatutako badaude, ondoren zerrendatzen direnetan, alegia: - obrei hornitzeko hormigoi prestatuen eta morteroen fabrikazioa - Fibrozementuzko produktuen fabrikazioa. - Masako, armaturiko, tenkatu osteko edo aurretenkaturiko hormigoizko eta morterozko artikulua eta elementuen fabrikazioa. | 2022/05/25 | 2024/02/02 batzorde paritarioaren akordioa | | |
| Zinema emanaldiak | Zinema emanaldien enpresak | 2006/02/03 | 2006/03/24: Soldata berrikuspena (14-15 orr.) | | |
| Zuraren Industriak | Hitzarmen honek 2012ko azaroaren 27ko BOEn argitaratu zen IV. Zurgintzako Sektoreko Estatu Hitzarmen Kolektiboaren III. eranskinean zehaztutako eta jasotako industria-jarduerak burutzen dituzten lantoki guztiei eragingo die. | 2021/10/25 | 2023/1/11: 2023 urterako lan egutegia 2023/11/13: 2024 urterako lan egutegia 2024/12/20: 2025 urterako lan egutegia | 2023/05/12: Akordioa | 2024/02/02 batzorde paritarioaren akordioa |